

INTERNET ZERBITZUA HAUR ETA GAZTE GELA



Liburutegiak **INTERNETERA SARTZEKO AUKERA** eskaintzen die **7 ETA 17 URTE BITARTEKO ERABILTZAILEEI**.

Internet Zerbitzua erabili ahal izateko, **LIBURUTEGIKO TXARTELA AURKEZTU** behar da, eta **AITAREN, AMAREN EDO TUTOREAREN BAIMENA** eduki behar da legezko arduradunek baimena eman dezaten, adingabeak zerbitzua erabili ahal izateko.

Internet erabiltzeko **SAIOEK** gehienez **EGUNEAN 30 MINUTUKO** iraupena izango dute. Ordenagailuak okupatuta badaude, itxaronzerrenda bat egingo da.

Ordenagailua **SOILIK LIBURUTEGIAREN ERABILERA ZILEGIENTZAT** erabiliko da, jabetza intelektualari, copyright-ari eta lizentziei buruz indarrean dagoen araudia errespetatuz. **EZINGO DA TXATEATU** ezta eduki pornografikoa, indarkeriazkoa edo xenofoboa duten orrialdeetan sartu ere, ezta giza-eskubideen, haurren aurkako edo hirugarrenen sentsibilitatearen aurkako informazioa bidali ere, ezta bidegabetzat edo penaltzat jo litekeen beste erabilera bat ere.

INPRIMATU behar baduzu, informa zaitez zerbitzu horretarako ezarri diren tarifez. Inprimakiak publikoari harrera eskaintzen zaion erakusmahaitik jaso eta bertan ordaindu behar dira. **NAHI GABEKO INPRIMAKETA EGITEN DUEN PERTSONAK INPRIMAKETAREN ZENBATEKOAZ ARDURATU BEHARKO DU.**

Erabiltzaileei jakinarazten zaie ordenagailuan grabatzen duten informazioa desagertu egingo dela saioa amaitzean eta segurtasun-dispositiboa aktibatzean.

Internet erabiltzeko postuen bitartez berreskuratu, lortu edo erabiltzaileei bidali ahal zaien informazioa ez da Liburutegiaren ardura izango inolaz ere.

Erabiltzaileek ez dute saiatu behar beren ekipoak berrabiarazten edo itzaltzen. **EDOZEIN ARAZO GERTATUZ GERO, LIBURUTEGIKO LANGILEEKIN KONTSULTATU BEHAR DA.**

Arau hauetako bat betetzen ez bada, ordenagailuak erabiltzeko eskubidea kentzeko eskumena izango du Liburutegiak. Zigorak baremo honen arabera ezarriko dira:

FALTA OSO LARRITZAT joko da ordenagailua suntsitzea edo hondatzea. **ETENALDI MUGAGABEAZ** gain, bazkideak ezaugarri bereko beste ordenagailu baten hornidura egin beharko du. Neurri hau hartzea eta gauzatzea Irungo Udalaren ardura izango da.

FALTA LARRITZAT joko da ordenagailua manipulatzeko edo kanpoko programak instalatzeko, baita jabetza intelektualean, copyright-ean eta lizentzietan eragina izan ahal duten erabilerak, baita eduki pornografikoa, indarkeriazkoa edo xenofoboa duten orrialdeetan sartzea ere. Falta horrek **SEI HILABETEKO ETENALDIA** ekarriko du zerbitzuaren erabileran.

FALTA ARINTZAT joko da ekipoak era desegokian erabiltzea edo Liburutegiaren lasaitasunean edo ordenan eragina duten jarrerak. Hasiera batean liburutegiko langileek ohartarazi egingo dute erabiltzailea, eta hark berean jarraitzen badu, portaera horrek **BI HILABETEKO ETENALDIA** ekarriko du zerbitzuaren erabileran.

LIBURUTEGIAK SAIOAK EDOZEIN MOMENTUTAN ETETEKO ESKUBIDEA DAUKA, BAITA ZERBITZUA MOZTEKOA ERE.

Eguneratze data: 2011ko UZTAILA